



VII. PELLO MARI OTAÑO BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Zizurkilgo Hernandorena Kultur Elkarteak VII. PELLO MARI OTAÑO BERTSO-PAPER LEHIAKETA antolatzea erabaki du Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunearekin lankidetzan, Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildarra omendu eta bertso-paperen adierazpideari keinu bat egin asmoz.

ANTOLAKETA

Lehiaketa lau mailatan bereizita dago:

- 1.- Gelen arteko maila: Lehen Hezkuntzako ikastaldeentzat.
- 2.- Gaztetxoen maila: 2005 urtean edo geroztik jaiotakoentzat.
- 3.- Gazteen maila: 2004 eta 2002 urteen artean jaiotakoentzat (biak barne).
- 4.- Helduen maila: 2001 urtean edo aurretik jaiotakoentzat.

LANAK

- 1.- Gelen arteko mailan, Tolosaldeko ikastetxeetako gela bakoitzak nahi adina bertso-paper bidal ditzake. Bertso-paper bakoitzeko hiru bertso edo sei kopla idatzi beharko dira, aukeran.
- 2.- Gaztetxoen mailan, parte hartzaileek nahi adina bertso-paper bidal ditzake. Bertso-paper bakoitzeko hiru bertso edo sei kopla idatzi beharko dira, aukeran.
- 3.- Gazteen mailan, parte hartzaileek nahi adina bertso-paper bidal ditzake. Bertso-paper bakoitzeko, gutxienez, sei bertso idatzi beharko dira.
- 4.- Helduen mailan, parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertso-paper bidal ditzake. Bertso-paper bakoitzeko, gutxienez, zortzi bertso idatzi beharko dira.

GAIA

Maila guztietan gaia, neurria eta doinua libreak izango dira, bakoitzaren aukerakoak. Bertso guztiek euskaraz idatzita egon beharko dute, Euskal Herriaz kanpotik bidalitakoek barne.

LANAKAURKEZTEKO MODUA ETA EPEA

Bertso-paperak e-mailez soilik aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Horretarako, helbide elektroniko honetara bidali beharko dira urriaren 11 baino lehen: info@hernandorena.eus

Bertso-sortak aurkezterako garaian, bi dokumentu bidali beharko dira:

- 1.- Bertso-sorta. Dokumentuaren izena bertso-sortaren izenburua izango da eta parentesi artean, egilearen izengoitia idatzi beharko da.

Adibidez: Gure katuaren festa (Mendigoizale)

- 2.- Izen-emate orria, osatuta. Dokumentuaren izena egilearen izengoitia izango da. (Izen-emate orria aurrez deskargatu).

Adibidez: Mendigoizale

SARIAK

	GELEN ARTEKOA	GAZTETXOAK	GAZTEAK	HELDUAK
1. saria	Gustuko bertsolariaren bisita eskolara	100 €	250 €	500 €
2. saria	Bertso-saio partizipatiboa, eskualdeko bi bertsolariren eskutik	75 €	125 €	250 €

EPAIA ETA SARI-BANAKETA

Epaimahai lanak **HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEAK** egingo ditu. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, sariren bat hutsik gera daiteke. Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.

Hernandorena K.E.ak 2020ko azaroaren 9an jakitera emango ditu epaimahaiak izendatu dituen irabazleak. Sari banaketa 2020ko abenduaren 4an egingo da Zizurkilgo Herrigunean, osasun-egoeraren baitan zehaztuko den toki eta ordutan.

LANEN JABETZA

Lan sarituen jabetza antolatzaileen esku geratuko da. Hernandorena K. E.ak eskubide osoa izango du lan horiek argitaratzeko. Lan saritu baten egileak bere bertsoak argitaratu nahiko balitu, Hernandorena K. E.aren baimena beharko du.

GARRANTZITSUA

Informazio guztia hernandorena.eus/pmotano/bertsopaperak gunean aurki daiteke. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartu direla esan nahi du. Argibideetarako: **656 743 741** edo info@hernandorena.eus.

